

Errobotik euskal itsasbazterrera

Ibilbide guztiak ikusi liburu honetan ►►
Turismo bulegoetan eskuragarri




Maila
4

ZAILA

GR® T2 COMÈTE IBILBIDEA
ITINÉRAIRE COMÈTE

- 1 Albert Jonhson "Be"
- 2 Janine De Greef
- 3 Speraber Medikua
- 4 Elvire De Greef "Tante Go"
- 5 Kattalin Aguirre
- 6 Gracie Ladouce
- 7 Fernand De Greef



ZIBURUTIK
BIRIATURA

Comète Sareko Hegoalde eskualdeko kide batzuk

Ibilbide honek, ahal izan duen neurrian, berriz hartzen du, «Comète» sareko mugalariek, Bigarren Mundu Gerra garaian, Euskal Herrian erabiltzen zuten ibilbidea hegazkinlari aliatuak Espainiara eramateko.

D₁ Aparkalekutik, Kattalin Aguirre karrika segitu eskuinean. Untxingo zubia gainditu eta 150 m urrunago ezkerrean itzul Zokoa karrikan. Segitu xuxen. Zubi azpitik pasa ondotik 100 metrotara, eskuinera hartu Handiabaita bidean eta segitu bide-adarkatzeraino

0:28 **1** 0605427-4804028, bertan, ezkerrean itzuli Eiherako bidean. Trenbide azpitik pasako zaretete eta maldan, bi bihurgune gaiztoen ondotik, ezkerrean hartu lurrezko bidean. Honek Urruñako gainera eramanen zaituzte. Bide mundrunatura helduko zarete. Sokorriko Ama Birjinaren kaperaraino segitu

1:00 **2** 0604823-4802477. Segitu bidegurutzearaino, ezkerrean hartu eta jautsi herri barnerantz. Herriko Etxeko plazatik, xuxen segitu RD810 errepideraino. Hau zeharkatuko duzue, RD304 errepidea hartzeko. A63 autobidearen zubiaren ondotik 400 metrotara, eskuinera hartu Biriaturako bidea. Bide honetan, oren erdi bat segurik ibili, Mendixokoa auzora heldu arte. Ezkerrean hartu Tomaseña bidexka hartu eta ondotik Petrusenborda etxaldera doan eskuineko bidexka hartu, hor hasten duzue ibilbidearen menditar zatia. Ehunka metroz segitu Bortuste bide mundrunatura heldu arte eta aski fite hau uzten duzue eskuinera doan bidexka hartzeko. Bidexka honek oihera eta larreen artetik iraganez Xoldokogainaren gailurrera


3:20 **3** 0603645-4797766 eramanen zaituzte eta sari gisa, ezohiko ikuspegi panoramiko ozeano eta euskal mendien gainean. Segitu

3:40 Pittarreko leporaino jautsiz **4** 0604066-4796829. Eskuinera hartu oihera sartzen den bidexkan. Bidegurutzearaino, utzi eskuineko bidexka (GR10) eta xuxen segitu. 2 erreka zeharkatu ondotik, bide-adarkatzearen aitzinean, segitu xuxen, eskuinera doan bidexka bazterrean utziz. Lizarlan bidera heldu zarete **5** 0602914-4795990 eta ezkerretik hartzen duzue, izen bereko baserrira heldu arte. Baserriko korralea zeharkatu (xakurrak ez dira gaiztoak) eta oihera doan bidexka segitu errekaraino eta honen eskuinetik ibili. Ondotik, zurezko zubixka hartu erreka zeharkatzeko. Hogeita hamar bat metroen ondotik, atari ttiki batek **6** 0602822-4795460 ahalbidetuko dizue penze batera heltzea. Bidasoaren ondoan den platanondo lerrotzearen ezkerretik ibili. Penzearen ateratzean, harri-hondakin baten ondoan **7** 0602886-4794907, ataria gainditu eta bidexkan segitu. Hau, mendi mazel oihera igotzen da eta mugaraino eramanen zaituzte

4:15 **8** 0603139-4794513. Ibilbide honen frantziar partearen bukaera da. **Mugazgaidiko ibilbidea denez, ibilaldia segi dezakezue nafar eta gipuzkoar lurraldeetan Errenteriaraino (18 km gutti gorabehera).**

4:40 **8** 0603139-4794513. Ibilbide honen frantziar partearen bukaera da. **Mugazgaidiko ibilbidea denez, ibilaldia segi dezakezue nafar eta gipuzkoar lurraldeetan Errenteriaraino (18 km gutti gorabehera).**

5:00 **8** 0603139-4794513. Ibilbide honen frantziar partearen bukaera da. **Mugazgaidiko ibilbidea denez, ibilaldia segi dezakezue nafar eta gipuzkoar lurraldeetan Errenteriaraino (18 km gutti gorabehera).**





D₁ (1.abialekua) **Ziburu**,
Untxingo plaza
Kattalin Aguirre karrika
Briquet Baita lekua

GPS : 0606520-4804768

D₂ (2.abialekua) **Urruña**,
Petrusenborda bidea
(ez aparkatu leku pribatu-
tuan)


GPS : 0604295-4799720

 **5:00 (joatea)**

 **17,58 km**


 **+858 m**
-770 m

Balizamendua

D-tik **8**-ra 

Ez huts egin

- Zokoako Gotorlekua
- Ziburuko itsas hilerria
- Urruñako herria
- Ikuspuntu ohargarriak euskal kostaldean

 **Ibilaldi hau ez da itzuli bat. Ibilgailu bat aurreikusi edo ibilbidea berriz egin alderantziz.**

• Kasu eman ibilgailuek erabiltzen dituzten bideetan eta batez ere RD erre-pideetan.

• Betizuen presentzia (basa behiak) Biriaturun, urrun egon

 **TERRE & CÔTE BASQUES**
PAYS DE SAINT-JEAN-DE-LUZ - HENDAYE
www.terrecotebasques.com

Xehetasun gehiago:

Ziburuko Turismo Bulegoa

27, quai Maurice Ravel - 64500 Ciboure - Tel : 05 59 47 64 56
officedetourisme.ciboure@wanadoo.fr - www.ciboure.fr

Urruñako Turismo Bulegoa

Place René SOUBELET - 64122 Urrugne - Tel : 05 59 54 20 14
info@urrugne.com - www.urrugne.com

www.rando64.fr

Oinez, mendiko bizikletaz edo zaldiz, Biarno eta Ipar Euskal Herria ezagutu !

Mailak

Fitxetan ageri den **desnibela**, igoera guztien emaitza da. Ibilaldien iraupena pausa momentuak konduan hartu gabe kalkulatu da.

Oinezko ibilaldiak mailaren arabera sailkatuak dira eta ibilbide bakoitzaren fitxa praktikokoan kolore batez azalduak. Izan ere, FF Randonnée-ren arauak segitzen ditugu.

Biziki errea 2 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egiteko biziki egokia, bidexka zabaletan zehar.

Errea 3 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egin daitekeena. Bidexketan,

tarte zailago batzuekin.

Ertaina 4 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Mendizale adituei zuzendua. Leku aski zail batzuk eta desnibela handia izaten ahal dira.

Zaila 4 oreneko ibilaldia baino luzeagoa.

Mendizale aditu eta kirolaria denari zuzendua. Ibilaldia luzea edo zaila izaten da. (desnibela, parte zailak), edo biak betan.

Ibilaldiaren iraupena: zure informazioarako emana da. Ibilaldiaren luzetasuna konduan hartzen du, baita desnibelak eta izan daitezkeen zailtasunak ere.



Bide seinaletika

Ibilaldien labelak

PR® labelizaturiko ibilbideak: Label horrekin, FF Randonnée-k oinezko ibilaldiak kalitatezko ezaugarrien arabera onesten ditu aitortpena. Hautua ezaugarri tekniko eta turistikoaren arabera, baita ingurumenari loturiko ezaugarrien arabera ere egiten da. (xehetasun gehiago ukaiteko, www.ffrandonnee.fr)

Ibilbideen GPS datuak.

Ibilbide bakoitzarentzat, etapa punduen GPS datuak emanak dira.

Erreferentzia formatua hau da:

WGS 84 - UTM 30T

Balizamendua

Balizamendua segitu bide onean egoteko

Bidexken balizamendua	Herri ibilbideak eta PR®	GR®
Norabide ona		
Ezkerrera itzuli		
Eskuinera itzuli		
Norabide txarra		

GR®, GRP® eta PR® Oinezko Ibilaldietarako Frantses Federazioak pautatu dituen sormarkak dira

Zure iritzia gure bidexkei buruz - Ecovaille®

Kasu handia egiten dugu proposatzen dizkizugun ibilaldiak hautatzerakoan eta prestatzerakoan. Gure bideen egoerari buruz dituzun iritziek eta oharrek interesatzen gaituzte. Horiei esker, bideak egoera onean atxikitzen ahal ditugu. Zure oharra jakinarazteko Hego Lapurdiko Hirigunea deitzera gomitatzen zaitugu: 05 59 48 30 85.

Edo « Ecovaille » ohar fitxa bat galdegin ondoko webgunean: www.rando64.fr

Aholku baliagarriak

Eguraldia 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com

Europako larrialdi zenbakia 112

Biarno eta Euskal Herriko bideetan gaindi ibiltzean lurralde hori biziarazten duten izadi, gizon eta emazteekiko portaera errespetagarria izan dadin ezinbestekoa da.

Arau batzu errespetatzea inportantea da.

Izadia begiratu

- Zure hondakinen biltzeko zaku bat hartu.
- Abereak eta landareak errespetatu
- Balizatuak diren bideetan egon

Zure burua zaindu

- Mendira ez abiatu behar den materialik gabe
- Bakarrik ez joaten saiatu.
- Erreketako urik ez edan.
- Aroari kasu egin.

Aktibitateak eta gizakiak errespetatu

- Hesiak berriz hestea pentsatu.
- Suak debekatuak dira.
- Ibilbideak inguratzen dituzten etxe pribatuak errespetatu.

Kasu !

Euskal eta biarnes mendiak artzain-eremuak dira. Xakurrik gabe joaten saiatu. Edozein kasutan, loturik atxik. Milesker !